

*EHUko uda ikastaroak: 'Euskal sortzaileak' zikloa*

# 1956-76: kazetagitza eta liburu-politika

**NIRI** dagokidan problematika egokitasunez mugatzeko 60ko hamarkada gainditu egin behar da. Nik neuk aukeratu dudana epea: 1956-1976: 20 urte 10en ordez.

Zergatik, bada, 1956-1976? 1956 aukeratu izan dugu aldi berriaren abiapuntu gisa. Hiru gertakari nagusi dira tarteko: Euskal Batzar Orokorra Parisen, Euskaltzaindiaren Arantzazuko Batzara, eta 'Jakinen' sorrera.

1975-1976 urteetan ixten dugu aldi hau. Arrazoi bat baino gehiago dago. Gogoratze hutsak aski behar luke: Francoren heriotza, Arestiren heriotza, Literatur aldarrikapen berria, euskal prentsaren urtea, etc.

Hogei urteko aldi honen barruan 3 urte-multzo bereizten ditugu, bakoitza bere ezauzgarriekin: 56-64 / 64-69 / 69-76.

### 1. 1956-1964

Gerraosteko giroan abertzale euskaltzaleek ezin izan dute barnean. Hego Euskal Herrian, plataforma egonkorrik sortu urtetan: 1952an Itxaropenak 'Kuliska sorta' sortzen du. Estomestarrak 1958an, esiliotik bueltan, 'Añuamendi' sortzen dute, elebiduna. 1961ean Antonio Zavalak 'Auspoa' sortzen du, bertso-larian lana bildu-asmoz. Kasu berria da 'Egan-ena', RSBA Pen inguruan, Gipuzkoako Diputazioaren inguruan sortua.

Aipaturiko mundu honekin zerikusiz zuzenik gabe gertatzen da 1956an gazteen plazaratzea. 'Jakinen' da lehena, eta garrantzikoena. Gerraosteko belaunaldi autonomoa biltzen da plataforma honetan. Gazteak dira denak, ez dago maisu edo leader zaharrik tartean. Estudiantek dira. Seminario erlijiosoetako ikasleak. Arantzazuko 'Jakinen' ondoan eta ondoren aurki ditzakegu: 1959an 'Arnas' (sakarmentinoak) eta 'Laiaketan' (pasiotarrak); 1960an 'Erein' (laterandarrak); 1965ean 'Gogoz' (karmeldarrak).

Eremu latz eta luze hau esplikatzeko ondo gogoan izan behar da Frankismoaren politika editoriala eta informatiboa indar betean dagoela Hegoaldean. Aurretiazko zentsura da ezaguna. Baina ez bakarria, eta agian ezta ere erabakiorrena. Zentsuraren prototipotzat hartzen delako, protagonismoa aurretiazko zentsurak izan badu ere, ez da baztertu behar Estatuak edizioaren gain duen kontrola. Editorial bat sortzeko enpresa-erregistroa egin behar da nahitaez.

Berdintsu gertatzen da aldizkariekin. Kultur edo informazio-aldizkari normalizatu bat euskaraz egitea ezinezkoa da frankismoan. Baimena lortu nahi baduzu, mugatu egin behar dituzu gaiak eta helburuak. Lortu daitezkeen organo bakarrik eremu mugatukoak dira, espreski gutxituak: informazio 'lokala', 'erlijioa', 'kulturala'. Hauxe da 'Jakinen', 'Zeruko Argia-ren', ren, 'Anaitasuna-ren' eta beste guztien burruka-gune nagusia.

Hauxe da azpimarratzekoa: auzia ez da soilki erregimenaren ortodoxia ideologiko-politikoaren muga gainditzea, baizik eta organo normalizatuak ezin lortu: enpresaren kontrola, baldintza gogorra da benetan.

### 2. 1964-1969

Lauzprobost urte hauetan, harrigarriro, sorrera mordo handia pilatzen da. Gertakari nagusiak dira, gainera, euskal kuztigitza: 'Zeruko Argia-ren' eta 'Jakinen' auro berriak, euskararen batasuna (Euskal Idazleen bilera

Baionan, Ermuan eta Euskaltzaindiaren bilera Arantzazun), Alfabetatzea eta Ikastola sorrera lurralde desberdinetan, euskal kantagintza, Euskal Liburu eta Diskoen Durangoko Azoka.

Zer bereziki komentatu, aldi honetan egosten denaz zer berezitu, ez da samurra. Gertakari bakoitza nortasun handikoa da, ondorioz bete. Azpimarra dezadan bat edo beste.

a) Rikardo Arregiren figura punta-puntakoa da. Bera dago, Karlos Santamariarekin batera, 'Zeruko Argia-n' eta 'Jakinen'. Bera da alfabetatzearen sortzaile eta eragile nagusia.

b) Euskara batua, idazle-bileretatik sortzen da. 1964an Baionan egin zen bilera erabakiorri geratu zen. Ordukoa da H famatua. 'Jakinen' aldizkariak osoki hartu zituen hango erabakia. Sekulako saltsa erakarri zuen. 1968an, Euskaltzaindiak batasun-eredua proposatzen duenerako, bide luzea egina dago jada. Mitxelena, Arantzazukoan, aipatzen dituen arrazoi biologikoez praxi bete da aldean.

c) Durangoko Azoka 1965ean hasi zen. Eta hurrengo urteetan, gogoratzen naizela, Durangoz gain, Arrasaten eta Eibarren ere egin ziren.

Sekulako garrantzia du Azokak. Liburuaren produkzioa urria zen oso. Honen presentzia soziala ez zen urria soilki, baizik eta ez-deusa, zero. Euskal Herriko liburutegia guztietan batera, gaur bertan Megabilintxen aurki daitezkeen euskal liburuaren erdirik ez zegoen. Eta eskaparretan alerik ez. Eta halere, berak usatu baino askoz gehiago zegoela euskaraz iruditu zitzaion orduko euskaltzaleari.

### 3. 1969-1976

Aurreko epealdiaren ildo beretik doa oraingoen bidea: sortu berri den proiektu zenbait finkatu egiten da eta beste zenbait sortu.

Urtealdi honen bereiztasun markatuena argitaletze berrien sorrera da. Bata bestearren ondoren dozana bat editorial plazaratzen da: 1968ko 'Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones' (SGEP), Irakur Sail eta Gordinailu-ren ondoren, Lur (1969), Etor (eta, ondoren, Gero eta Erein), Jakin (1971), Iker (1972), Elkar (1973), Kardaberaz (1974), Haranbururen Kriselu (1975), Leopoldo Zugaza (1975). Honelako gehientsuenak momentuko premiei (ideologiko, politiko, kulturazko) erantzun nahi diete, euskal kultura moderno bat bilatzen dute, idazle-talde bat dute oinarrian, plangintza jakin baten arabera funtzionatzen dute: euskara batua, gaien aniztasuna, autore berriak eta gazteen aldeko apostua, autore modernoen itzulpena, euskal klasikoen eskuratzea, publiko gazte eta herritarren zati faltrikera liburu merkea...

Politika editorial honek aldarrikapen bat baino gehiago izan zuen aurretiaz. Bi gogoratu ditut: bat, 'Jakinen' 1969ko lehen zenbakian euskal kulturari buruzko editorial bat publikatzen du, bideak markatu-nahian, Batzorde Nagusi txiki bat bailitzen, euskal kultura planifikatzeko. Bi: Rikardo Arregik, 1969an, justu hil aurretik, editorialgintzarena garatu egiten du. Bata, azken hau, osoki Rikardorena da, bistan denez, eta bestea, 'Jakinen' editoriala, hura ere bai zati on batean.

'Jakinen' 34. zenbakiko editorialaren kontzeptu giltzarria, planifikazioa da. Nola planifikatu, ordea, prozesua gidatzeko erakunde-

rik ez dagoenean? Aipaturiko editorial horretan eskema sinple batekin jokatzen da. Alde batean, euskal kulturaren gaitzak: espontaneismoa, amateurismoa, folklorismoa. Kontrako muturrean, soluzioak: eraldaketa, eraberritzea, iraultza, programaren bidez, planifikazioz, koordinazioz, profesionalismoz, 'kuadron' bidez. Zehazki, hona proposamenak: Euskaltzaindiaren birmoldaketa, idazleen koordinazioa eta profesionaltzea, irakuntzaren planifikazio orokorra, editorialeko liburu-politikaren programaketa.

Politika editorialari dagokionean, euskal liburuarekiko politikaren hutsunea salatzen du, kultur gai guztietaz liburuak ateratzeko ordua dela aldarrikatzen du. Batasun ortografiko eta terminologikoa eskatzen du. Produktzioa planifikatzea proposatzen du, hain justu ikastola, alfabetatze eta unibertsitatera so.

Hain zuzen ere Rikardo Arregik, hil aurretik, editorialgintzen puntu hau luze eta zabal erabiltzen du.

Diagnostiko beltzetik abiatzen da gure autorea: espontaneismoa (euskal liburuaren politikarik eza, pasibukeria, segidismoa), argitaletzearen kultur erakarmenik eza, irakurle berriekiko axolarik eza, ohiko merkatuaren saturazioa (bai idazleen aldetik, bai gaien aldetik eta berdin irakurleen aldetik).

Soluzio gisa aurkezten den liburu-politikak oinarriko hiru sail hauek garatu behar ditu: 1) Kulturaren dibulgaziozko oinarriko liburuak, 2) Itzulpen eta saiakera laburrak, 3) Literatur kreaizio hutsezko obrak.

Liburu-politika honek —eta ondoren sortzen diren argitaletze guztiek— euskarari kultur modernotasuna ematea du helburu nagusi. Literaturak, sail gisa, ez du tratamendu espezifikorik. Hirugarren dator lehenatasun-zerrendan, eta kitto.

Liburu-politika honek zerikusiz gutxi du, nola aurreko belaunaldikoarekin hala hurrengo belaunaldiak plazaratzen dituen kezkekin. Ikus dezagun bi kontrapuntu: 1936an argitaratutako 'Genio y Lengua' liburuan Ibar-ek badirudi liburu politika lehiaketetan oinarritzen duela. Lehiaketa horien egitekoa bikoitza da: literatur balioak piztea, eta produktioa. Ibar-en ustetan gehien landu beharreko jeneroen lehenatasun-mailaketa hau da: literatura erlijioa, herri-olerkia edo bertsoari, antzerkia, elaberri laburra, zientzi-dibulgazioa.

1975ean, Joseba Irazu editore, eta Bernardo Atxaga eta Koldo Izagirre idazle, 'Panpina Ustela-k' bide berri bat markatu nahi du. Lehen Manifestuak literatura onaren aldeko garrasi izan nahi luke. Sariketa literarioak kritikazten dituzte. Argitaletze eta aldizkari hertsia izatea eta interes extraliterarioen murrizteaz leporatzen diete. Literatura, hauentzat, espresabide da lehenengo eta komunikabide gero. Bertsoariaren figuraren garrantzia aldarrikatzen dute.

Bidenabar —eta bukatzeko— esan dezagun literaturaren autonomia errebindicatuz abiatzen dela 76ko belaunaldia. Literaturgintza eta kazetaritza, horra belaunaldi honen ezaguarri nagusiak.

### JOAN MARI TORREALDAI

'JAKIN' ALDIZKARIKO ZUZENDARIA

## BERRIAKZIRI



**PATXI ZABALETA**  
Hiko Mahai Nazionaleko kidea  
EL CORREO

«Ezker abertzaleak, teoriaran, 400.000 boto izan ditzake, eta nire helburua boto horiek lortzea da»



**LUIS MARIA RETOLAZA**  
Bizkaia Buru Bozaren burua  
DEIA

«Biolentzia historiarriaren osagai bat da, eta guk, nazionalistok, oso ondo ikasi genuen 36an»



**ANTONIO GUTIERREZ**  
CCOOko idazkari nagusia  
EL MUNDO

«Gonzalez-oren ondoren berriro ere sortu beharko dugu botere demokratikoa»



**JUAN MARI ARZAK**  
Sukaldaria  
LA VANGUARDIA

«Nire us-tez, Donostia legatzaren munduko hiri-burua da»

## ZAKILIXUT

© Olariagaq

